

# ESPAINIAKO KONSTITUZIOAREN EUSKARAZKO TESTU KOOFIZIALA. MINTZAIRA JURIDIKOA EUSKARAZ. OHAR BATZUK

Jasone Astola Madariaga

DOI: <https://doi.org/10.47623/ivap-rvap.28.1990.08>

LABURPENA: I. AURKEZPENA. II. ESPAINIAKO KONSTITUZIOA EUSKARAZ. III. HITZ JURIDIKOEN NAHASKETA. IV. MINTZAIRA JURIDIKOAREN IDAZ TANKERA: 4.1. Testu ulertezinak. V. GUZTI HONEN ONDORIOAK. VI. PROPOSAMENA.

Jende ugarentzat euskararen ahuleziaren benetako iturria, bizitza publikotik at egotea izan da. Askotan entzun dugu, Erakundetara heldu bezain pronto, bermaturik geratuko dela bere etorkizunerako bizitza. Hitz batean esateko, euskarak, bere «bizitza pribatutik» «bizitza publikora» pasatuz gero, bizirik iraungo duela, izan da mezua. Eta gure ustez, esaera hauei ez zaie arrazoirik falta.

Espainiako 1978.eko Konstituzioak, ideia hau onartu zuen bere 3. artikuluko 2. eta 3. zenbakitan, honako hau adieraziz:

«2. *Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak (1) izango dira haiei dagozkien Erkidego Autonomoetan berauen Estatutuei dagozkien eran.*

3. *Espainiako hizkuntza mota ezberdinen aberastasuna kultur ondare bat da eta hura babes eta begirunegarri izango da.»*

Gure hemengo lanean, ea nola betetzen den Euskal Herriko «Erkidego Autonomoan» Konstituzioak esandakoa, ikusiko dugu. Azterketa hau, bakarrik, esparru batean mugituko da: Zuzenbidezko mintzairan.

## I. AURKEZPENA

Orain direla lau urte hasi nintzen Estatu-Teoriazko klaseak ematen Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomi eta Enpresal Zientzien Fakultatean, euskaraz eta gazteleraz. Gai hau lehengo kurtsoan dago kokaturik, eta behar beharrezkoa egiten zaigu Konstituzioa, ikastaro erdia baino gehiago Espainiako Konstituzioa aztertzen doakigu. Hau dela eta, talde euskaldunarentzat klaseak prestatzerakoan arazo mordo baten aurrean aurkitu nintzen:

— Lehenengoa: ez zegoela ezer prestatu euskaraz klaseak emateko.

— Bigarrena: ez zegoela —oraindik ere ez dago— euskaraz argitaraturiko Konstituziorik. Bakarrik, Konstituzio bera onesteko hauteskudetarako atera zen ale elebiduna gordetzen dutenek izango dute Konstituzioa euskaraz irakurtzeko aukera. Hau gutxi balitz, ale horretan agertzen den Konstituzioaren 3. disposapen derogatzaileak hauxe dio:

---

(1) Koofizialtasunak zer adierazten duen jakiteko begira A. LÓPEZ BASAGUREN, *El pluralismo lingüístico en el Estado autonómico. Autonomías. Revista Catalana de Dret Públic*. 9 Zenbaki, 1989.ean, 47-83 orr.

«*Era berean derogaturik geratzen dira Konstituzio honetan ezartzen diren disposapen guztiak*» (2).

Kalean dagoen Konstituzio bakarrak holako esaldia izateak, uste dut, ez diola mesede handirik egiten gure hizkuntzari.

— Hirugarrena: Konstituzio bera.

Koofizialtasuna duen testu hau aztertuko dugu orrialde hauetan, baina azterketan sartu baino lehen, zera esan behar dut:

Nire gaia, esan dudanez, lehengo kurtsoan dago kokaturik. Honek suposatzen du nire ikasleentzat guztiz ezezaguna dela zuzenbidezko mintzaira. Mintzaira honetan sartzeko euskaraz dauzkaten tresna bakarrak, niri harturiko apunteak eta arau juridikoak dira. Ez dago liburu bat ere gaiak euskaraz ikasteko (3). Hori dela eta, liburu bat ikasterakoan edo irakurterakoan, euren lana izango da liburu hori euskaratzea.

Osatu behar dugun gaia prestatzeko segidan aurkeztuko ditudan Konstituzioa, Estatutua eta beste zenbait lege aztertzen ditugu.

Konstituzioa irakurri ondoren, argi daukagu denok, ezinezkoa dela tresna baliagarritzat hartzea (4). Horregatik, hemengo azterketaren helburua ez da dena neurtzea, gai honetara gure harri koxkorra ekartzea baizik.

Nahiz eta, azterketa honetarako hartu dugun ardatza kasu zehatz bat izan. ez gara gauza pertsonal batetaz ari, euskarazko mintzaira juridikoari buruz baizik. Zuzenbide munduan mugitzen garenok arazo berbera aurkitzen dugu.

Aurea egin baino lehen, argi utzi nahi dut gauza bat: Daukagun Konstituzioaren itzulpena, ez dela pertsona baten errua (behintzat, ez dut itzultzailearengan jarri nahi erantzukizuna), gauza asko izan behar dira kontutan hori ulertzeko, baina, hori aztertzea ez da lan honen helburua. Izatez, 1978.eko egoera eta oraingoa ez dira berdinak, eta sentsu horretan, itzultzailea, bakarrik hango egoeraren ispilua izan zen, ez besterik.

Joanak joan dira, oraingoz ari gara; eta erabat ulergaitza egiten zait, holako artikuluka baten beharra izatea egoera hau salatzeke. Hainbat eta hainbat jende ari gara tresna hauek erabiltzen, guztiontzat, lan izugarria izanik. Baina, hala eta guzti, «lan pribatua» besterik ez da, oinarri publikorik gabekoa (bakoitza bere kabuz ari da), eta hori dela eta, baliorik gabekoa, eraginkortasunaren aldetik.

Gauza asko egin da hizkuntza-normalkuntzarako (5) eta guztiak beharrezkoak: egoera berezi batetan bizi garelako, hizkuntza oso bat eraiki beharrean gaudelako, baliabide arrunta bihurtu nahi dugulako. Baina..., ez dugu ezer lortuko oinarriak ez badaude tinko eta indartsu. Eta, heldu zaigu horretarako garaia.

Gero eta ikasle gehiago ari da bere heziketa euskaraz egiten, eta nire galdera da zertarako. Nire ikasleentzat behintzat ez dago ezer prestatu oraindik. Nire

---

(2) Itzulpen ofizialean (berehala abiatu nintzen hura ikustera. harridura biziaz). *Konstituzio honen aurka* erabiltzen da, gutxienez.

(3) Liburu bat itzultzerakoan, segidan aipatuko dugun arazoeekin egingo genuke topo. Hori izan da, beste batzuen artean, oraindik itzulgabe egotearen arrazoia.

(4) «Begi bistan dagoenak ez du ispilua beharrik» Esaera hau nireganatu dut. azterketa hau egiterakoan.

(5) Adibidez 1987ko Maiatzaren 11 eta 13aren bitartean, III. mahai-ingurua bildu zen Gasteizen, Hizkuntza-normalkuntzarako teknikarientzako, Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (HAEE) babespean. 1989, HAEE-k argitaratu zuen (izan horrekin) liburuxka bat. Administrazioa Euskaraz sailean, 2. zenbakia.

ikuspuntutik hobe gazteleraz ikasiko balute Estatu-Teoria. Konstituzioa traketsa da puntu askotatik begiraturaz (bai hizkuntzalaritza aldetik, bai gramatika aldetik, bai zuzenbide aldetik...), Estatutua beste mintzaira batetan dago idatzita eta Legebiltzarreko legeak ulertezinak dira. Gainera ez dago zer ikusirik euren artean, idaztankera aldetik.

Badakit denontzat zaila dela atzera begiratzea eta hango akatsak zuzentzea, gure nortasunarekin bat etortzen dena, aurrerako ihesbidea hartu eta hor konpon, «Ez dakusat, ez dago», izaten da. Baina honek ondorio txarrak dakartza eta gainera, hauek bai, gure gainean daudela. Ezin dugu, une honetan, besteenganako errutan dihardu.

Zuzenbidezko mintzairak mundu pribaturik mundu publikora pasa behar du bestela, ez dugu inoiz izango benetako Zuzenbidezko mintzairarik.

Segidan, testu ofizialen azterketa egin ondoren, gure proposamena adieraziko dugu, lehen bait lehen egoera honetatik ateratzeko.

## II. ESPAINIAKO KONSTITUZIOA EUSKARAZ

Gauza arrunta da euskaldun batentzat, kaletik zehar ateratzen denean, iragarkiak irakurtzen hasi bezain pronto, akatsek inoiz egitea. Baina, gauza bera Konstituzioan gertatzen denean, arazo serio baten aurrean gaudela, uste dugu.

Espainiako Aldizkari Ofizialak (edo Espainiako Agintaritzaren Aldizkariak) 1978.eko Abenduaren 29an argitaratu zuen «*KONSTITUZIO ESPAINIAKO*», letra handietan gainera (Euskara ikasten ari den edozein ikasle, jadanik bere lehenengo mailan, badaki, ezinezkoa dela euskaraz honela esatea «Espainiako Konstituzioa»). Bere azterketa egiteko Hitzazurretik, lerroz lerro, hasiko gara:

*«Espainiako Nazioa, justizia, askatasun, seguritate eta hura osotzen duten ontasuna bultzatu eta ezarri nahiaz, subiranotasuna erabiliz, hurrengo nahia adierazten du»:*

Zati hau irakurri ondoren honako hau aurkitzen dugu:

— Espainiako Nazioa bada adierazten duena, Espainiako Nazioak adierazi beharko lukeela.

— Hitzei buruz:

«*Seguritate*» hitza hartzen badugu honako hau gertatzen da: UZEIko Zuzenbidezko eta Politikazko Hiztegiak hartzen baditugu ez dugu aurkituko hitz hori. Babesa adierazi nahi badugu *segurtasun* edo *segurantz*a hitzak izango dira aproposak, eta zalantzarik eza adieraztea bada gure nahia *ziurtasun* hitza da bilatzen ari garena, ziurtasun juridikoa, adibidez. Nire ustez *segurtasuna* izango litzateke hemengo hitza (6).

«*Ontasuna*» edo orain esaten den eran, ondasuna, gauzak edukitzea da, balorezkoak edo bestelakoak, baina sentsu materialean, Konstituzioa ordea, guztien ongi izateaz ari da.

«*Nahia*» nire ustez, borondate hitzak hobeto betetzen du gure Konstituzio egilearen nahia.

---

(6) UZEIko hiztegiaren ere ez da erraza izaten «ziurtasunez» mugitzea, adibidez Politikazko hiztegiaren «aseguru soziala» agertzen bada Gizarte-Segurantzaz Zuzenbidezko hiztegiak erabaki duen era gauza bera esateko. Zein erabili? Galdera honen erantzuna lortzea da gure jomuga.

— Joskera: Guretzat, dagoen itzulpenak ez dio sentzu bera ematen Konstituzioak esandakoari, itzulpena simple aldetik gaizki egotearen gain, euskaratze aldetik era gaizki dago. Euskaratze lanetan adituak izan gabe, honako beste joskera hau izango litzateke aproposagoa gure ustetan (7):

Espainiako Nazioak, justizia, askatasuna eta segurtasuna ezartzeko nahian, eta bera osatzen duten guztien ongi izatea bultzatzeko, bere subiranotasunaren erabileran, bere hurrengo borondate hau aldarrikatzen du.

*«Demokratik bizikidetasuna garantizatu Konstituzio eta legeen barruan ekonomiko eta sozial justu baten arau adostasunaz.»*

— Ekonomik eta sozial justu baten arau adostasunaz, hartzen badugu, argi geratzen zaigu, josketa aldetik, «arau» hori, tokiz kanpo geratu dela. Irartuts edo errata bat ez bada ere, horrela geratu da Espainiako Aldizkari Ofizialean.

— Hitzak:

*«Demokratik», «ekonomik» ez dira honela erabiltzen, demokratikoa eta ekonomikoa izango lirateke egokiagoak. Honako hau izango litzateke gure proposamena lerroalde honentzat:*

Bizikidetasun demokratikoa bermatu (garantizatu) Konstituzioa eta legeen barne, ordena (edo ordenu) (8) ekonomiko eta sozial justu baten arabera.

*«Eskubidezko Estatu bat indartu, lege agintea herri nahiaren azalpen bezala aseguratuz.»*

Lerroalde honetan Zuzenbide munduan dauden eduki garrantzitsuenetariko batzuk, agertzen dira. Ezinbestekoa da kontzeptu hauek argi izatea, oraingo munduko zuzenbidezko egitura ulertzeko eta azaltzeko. Goazen ikustera nola azaltzen diren eduki hauek euskarazko Konstituzioan:

— *«Eskubidezko Estatu»* hori ezinezkoa da edozein tokitik begiratzuz. Hemen itzulpenaren akatsa argi dago. Eskubide (pertsonala, subjektiboa, pribatua, bakoitzarena) eta Zuzenbide (denontzat eginda, objektiboa, publikoa, guztiona) artean dagoen ezberdintasuna itzulpenetik at geratu da.

Ez dago Eskubidezko Estaturik, gainera Zuzenbidezko Estatura heltzea askoren jomuga izan da mendeetan zehar. Legearekiko menpekotasuna, bai biztanlegoarentzat eta bai Estatuko erakundeentzat, adierazten du eduki honek. Oraintxe bertan Europako Ekialdeko Estatuari holako Estatu erakitzea ezinbestekoa egiten zaie Mendebaldeko Estatuaren laguntza jasotzeko. Adibide honekin adierazi nahi duguna da kontzeptu honen garrantzia. Gure Konstituzioaren zutabe garrantzitsuenetariko baten aurrean gaude, eta barkaezinezkoa da euskaraz gaizki egotea.

— *«Lege agintea»*: Zuzenbidezko Estatuaren legea da nagusi, esan dugunez, eta nagusitasun hau adierazteko beste oinarritzko kontzeptu bat erabiltzen da, «legearen inperioa» (9). Betirako erabaki behar da nola esan: lege agintea edo legearen inperioa edo legearen nagusitasuna edo e.a.

---

(7) Gure hemengo itzulpenen helburua zer dioen konstituzioak azaltzea da, horregatik lerroaldea ulergaitza denean erabiliko ditugu.

(8) Hemen ere UZEIko hiztegiak ez datoz bat, «ordenu» da Politikazkoan eta «ordena» Zuzenbidezkoan.

(9) Honela dio, behintzat, UZEIko hiztegiak.

— «*Herri nahia*»: Estatuaren boterearen iturria zein den adierazteko teoria pila bat egon da denboraren zehar: Jaungoikoarengandik datorrela, Erregearengandik dela, Nazioarengandik dela e.a. Orain askenez, argi dago herria dela iturria, eta herriaren nagusitasuna adierazteko dagoen kontzeptu bat «*herri nahia*» edo «*herri borondatea*» da. Guztiz garrantzitsua da erabakitzea zein hartu betirako.

«*Espainol eta Espainiako Herri guztiak giza eskubideen parte izan dezaten, baita beraien kultura eta tradizioek, hizkuntza eta erakundeek ere.*»

Lerroalde honi dagokiona zera da: ez dator ezertarako bat Konstituzioarekin.

Zer esan bahi du «*giza eskubideen parte izan dezaten*»? Norekin doaz «*kultura eta tradizioek, hizkuntza eta erakundeek*»? Segidan jarriko dugu zein den Konstituzioaren mezua:

Espainol eta Espainiako Herri guztiak babestu bere giza eskubideen erabileran, beraien kultura eta tradizioetan, hizkuntzak eta erakundeak.

«*Kultura eta ekonomia bultzatu denek bizitza duin kalitatezko bat asegu dezaten.*»

*Kultura eta ekonomia bultzatu*» honi aurrerabidea faltatzen zaio, Konstituzioak esandako esan behar bada, behintzat (10): Kultura eta ekonomiaren aurrerabidea bultzatu. «*Bizitza duin kalitatezko bat*» hori apur bat aldebera dela uste dugu, euskal joskeratik urrun. Guretzat hobeto egongo litzateke «*bizitza kalitate duina*».

«*Gizarte demokratiko eta aurrerakoi bat ezarri, eta.*»

Hemen komentatuko genukeena zera da: ez dagoela barne orekarik «*bizitza demokratiko*» honen eta lehengo «*Demokratik bizikidetasuna*» artean. Lerroaldeari buruz eta guretzat «*bat*» hori soberan egongo litzatekeela.

«*Harreman baketsu batzuk sendotu eta baita lurreko herri guztien arteko erkidego eragile bat sortu.*»

Lurreko herri guztien arteko harreman baketsuen eta lankidetzaren eraginkorraren sendotzean parte hartu. Hau da Konstituzioak dioena.

«*Ondorioz, Gorteek onartzen dute eta Espainiako herriak hurrengo hau berresten du.*»

Hitzaurrea ikusi ondoren, ezer gehiago begiratu gabe, Konstituzioaren berrizulpenaren beharra, besterik gabe, nabaritzen dela uste dugu. Konstituzio osoa artikuluz artikuluz aztertuko bagenu, ez genuke artikulua bat ere dagoen bezala utziko. Honela hasten da:

---

(10) Kontuan izan behar dugu itzultzailea ez dela legegilea, horregatik legegileak esandakoa adierazi behar du, ez besterik.

## 1. Artikulua

1. «*Espainia* Eskubidezko Estatu sozial eta demokratiko bat batean eraikitzen da eta beraren balore nagusi bezala, lege araugintza, askatasuna, justizia, berdintasuna eta **politik** aniztasuna» (11).

Konstituzioaren euskara kontutan izanik, gure ustez, ez litzateke beharko beste itzulpen bat, lehenengo euskaratzea baizik.

Lehenago esan dugunez, itzultzaileak, tekniko hutsak dira. Haien lana itzultzea da, ez legea egitea edo ta mintzaira oso bat sortzea, eta hori egitera behartutik egon dira orain arte. Honen ondorioa, honelako zuzenbidezko mintzaira eza izatea da. Konstituzioa, lehenengo sasi urratsa izan zen baina handik hona, gauzak gehiago nahastu dira.

## III. HITZ JURIDIKOEN NAHASKETA

Aitortu dut nire gaia zuzenbidezko mintzairan sartzeko oinarria dela; eta oinarriaren oinarria Konstituzio bera da, noski. Klaseen helburua Konstituzioan agertzen diren edukiak edo kontzeptuak menperatzea da. Horretarako, ez gara bakarrik Konstituzioaz baliatzen, gure Lurraldeko konstituzionaltasunezko blokeaz baizik.

Estatutua, Ekonomia-Ituna, Euskal Legebiltzarrerako Hauteskundeak arautzen dituen Legea, edo eta Autonomia-Elkarte Osorako Erakundeen eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Erakundeen Arte Harremani buruzko Legea ere erabiltzen ditugu, gure kasua sakonki aztertzeko. Eta hona hemen zerekin aurkitzen garen kontzeptuak azaltzerakoan:

— Lehenengo urratsa: zein hitz erabili:

Denontzat dago argi eta garbi, Zuzenbide munduan mugitzen ez direnentzat ere, nolako garrantzia duen hitzak mundu honetan. Hitzetatik datozkigu gure eguneroko bizitzan ditugun eskubide eta betebeharrak. Errespetatzen al da hitzaren garrantzia euskaraz? Goazen ikustera:

Konstituzioa *Aitzin Tituluaz* hasten bada, Atariko Buruak hasten du Estatutua ordea, eta zer esan Legebiltzarreko Legeetaz, haiek Aitzin-Idazpurua dute hasieran.

*Artikulu* edo *Atala* (12); *Titulua*, *Burua* edo *Izenburua*; *Kapitulua* edo *Atalburua*; *Disposapen*, *Agindu* edo *Erabakia* eta *Behin behinekoak*, *Iragankorrak* edo *Aldi batekoak*; *Konpetentzia* (13) *Konpetentzia*, *Eskuduntza* edo *Agintebideak* edo eta «gaitasunaren jabe izan»; *Estatu* edo *Erresuma*; *Erkidego Autonomoa* edo *Komunitate Autonomoa*; e.a.

---

(11) Gaztelaniara itzuli beharko bagenu hau esango genuke:

«España se constituye en un Estado social y democrático de derechos (individuales), la producción de leyes, la libertad, la justicia, la igualdad y el pluralismo político como sus valores superiores». Baina ez genuke inoiz itzuliko Konstituzioak dioena:

«España se constituye en un Estado social y democrático de Derecho, que propugna como valores superiores de su ordenamiento jurídico la libertad, la justicia, la igualdad y el pluralismo político».

(12) Konstituzioan ateratzen da lehenengo hitza. Estatutuan bigarrena eta Legebiltzarreko Legeetan hirugarrena.

(13) Konpetentzi hau uste dugu argitaratzekoan egin zen akats bat dela, baina hor dago, testu ofizialean.

Nik, jakin, badakit (gazteleraz ikasi dudalako) zer den hitz bakoitza, egia esateko, ia beti, baina nire ikasleen kasua beste bat da. Hauek orain ari dira zuzenbidezko mintzaira ikasten, ez dute hitzik ez esan nahirik ezagutzen. Nirekin ikasiko dute hitza eta bere esan nahia, eta gero behar bada arrezagutuko dute beste hizkuntzetako hitz edo kontzeptu bera.

Hitza eta esan nahia adierazi behar ditut. Gazteleraz edo beste edozein hizkuntzetan hitza ikasi ondoren, edozein tokitan hitz bera, esan nahi beraz azalduko da beti, baina euskaraz...

Segun eta nor den itzultzailea bere hiztegi propioa erabiliko du, horregatik esan dezakegu:

- 1) Ez daukagula benetako mintzaira juridikorik; eta
- 2) oraindik okerrago den zenbait, ez gaudela oraindik hori lortzeko bidean.

#### IV. MINTZAIRA JURIDIKOAREN IDAZ-TANKERA

Esan dugunez Zuzenbide munduan hitza erabat garrantzitsua da, baina honen gain, idaztankera juridikoa ahaztezina da ere. Idaztankera, gauzak behin eta berrito errepikatzen direnean lortzen da. Apurka apurka gure belarriek ohitura bat hartzen dute, eta askenez, ia mekanikoki, esaldiak berez ateratzen dira gure ezpainetatik. Ba al dago euskaraz zuzenbidezko idaztankerarik? Ikus dezagun:

— *«Erkidego Autonomoek har dezaketen Konpetentziak alor honetakoak dira» (14).*

— *«Euskal Herriko Komunitate Autonomoak ondoko gaiei dagozkionean konpetentzia eskusiboa du» (15).*

— *«Kondaira-Lurraldeetako Erakundeen Agintebideak» (16).*

— *«Kondaira-Lurraldeetako Foru-Erakundeek, bakoitzaren berarizko lege jaurpideen arauera erabiliko duten bakarreango agintebidea izango dute honako gai hauetan» (17).*

Konpetentzia edo Agintebidea, eskusiboa edo bakarreangoa alor edo gai hitzen gain, bakoitzak idaz-tankera ezberdina duela ere ikus dezakegu.

Beste alde batetik: Zuzenbide mailan legeek euren arteko zerikusia dute, eta horregatik arrunta da lege batek beste baten zati bat aipatzea, euskaraz gauza bera gertatzen da, baina bereiztasun batez. Aipatzen diren hitzak, bakarrik sentsuz dira berdinak, ez dira inondik inora hitz berak erabiltzen: adibidez, Azaroaren 25eko 28/1983ko Legeak, Eusko Legebiltzarreko Hauteskundeei buruzkoak, Zioen adierazpeneko bigarren lerroaldean esaten du:

*«...Autonomia-Estatutuaren 10.6 Atalak dionaren babespean, hauteskundebideen antolakuntza «Euskal Herriko Berarizko erakunde (18)» bati dagozkion arauetara buruzkoa denez gero»...*

---

(14) Konstituzioaren 148.art.

(15) Autonomia-Estatutuaren 10.art.

(16) Ekonomia-Itunaren 2garren atalak.

(17) Azaroaren 25eko 27/1983 Legaren ez Zazpigarren atalak.

(18) Gazteleraz «organización propia del País Vasco».

Ba, begiratzen badugu Estatutuan 10.6 Atal hori ezinezkoa egingo zaigu «Euskal Herriko berarizko erakunde» hitzak (19) aurkitzea. Eta honela hainbat eta hainbat alditan.

#### **IV.1. Testu ulertezinak**

Batzuentzat, hizkera juridikoa ulertezina da, eta guk zera esango genuke: testu juridikoak ulertzeko hizkera juridikoa jakin behar da, baina honen gain ez dago arrazoirik hizkera aldetik ulertezina izateko. Segidan aurkeztuko ditugun testuak ulertzeko, zuzenbidezko mintzaira menperatzearen gain zerbait gehiago behar dela uste dugu:

*«Lege organikoaren bidez baimena itunak sinatzeko eman daiteke; hauek direla eta, nazioarteko erakunde edo instituzio bati atxikitzen zaio Konstituziotik ondorio daiteken konpetentzien erabilpena. Gorte Orokor edo Gobernuari dagokio, itun hauek betetzeko garantia. Baita ere nazioarteko edo nazio gaineko erakundeek emandako erabakiak ere bai»*

*Dio Konstituzioaren 93. artikulua.*

*«Jaurlaritzak (beste testu guztietan —Konstituzio, Estatu— Gobernu hitza erabiltzen da) lehen esandako eta Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak ontzat emandako araupidetza barne izan dezan Lege-Egitasmoa bidaliko dio Legebiltzarrari (Euskal Biltzarra, Estatutuan) horren onarpen-eske. Egitasmo hori Atal bakarreko Lege gisakoa izango da, eta Lege honen 29garren Atalean oharmandako jaurpideez heuz baliaturik onartuko da.*

Dio Kondaira-Lurraldeei buruzko Azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, bere 22garren Ataleko zortzigarren oinarri irizipean, *in fine*.

Normalean arau bat berehala ulertzen ez denean (20) (aipatu dugu hitzen garrantzia Zuzenbidean), egiten dena errazena da: beste hizkuntzara jo, ea zorte hoberik dagoen. Eta esan behar dugu, gehienetan, gazteleraz euskaraz baino hobeto ulertzen direla legeak. Honek ezinbesteko ondorioa dakar: jendeak ez dituela legeak euskaraz irakurtzen, zoritxarrez.

Beste alde batetik, konparatuko bagenitu testu biak mintzairaren erritmoaren ezberdintasuna nabaritutuko genuke. Guztiz normala da. Euskara asko aldatu da azken urte hauetan baina oraindik aldaketa guzti horiek maila «pribatuan» mugitzen dira.

---

(19) Gazteleraz bai.

(20) Batzutan asko saiatu ondoren ere ez da ulertzen.



## V. GUZTI HONEN ONDORIOA (21)

Ondorio nabarmenena hauxe da: Ez daukagula zuzenbidezko mintzairarik euskaraz.

Hasieran esan dugu euskara hizkuntza publikoa bihur dadin egin direla hemen azaldutako legeak, baina gauzatxo bat atxiki behar diogu esandakoari: hizkuntza publikoa izateko ez da nahiko euskaraz esatea, euskaraz esaten dena denontzat ulergarria izatea, eta gauza bera esateko hitz bera erabiltzea baizik. Hortik hasiz gero, aberastuko da gure hizkuntza, bestela denbora eta indarrak alfer alferrik galtzen ari gara.

Orain direla urte batzuk, bizi bizirik zeuden euskalkiekin euskara batua eraiki zen, euskara bizi dadin hori zelako bide bakarra. Horrela hizkuntza publikoa bihurtu zen. Une hartan kritika itzelak egon baziren ere, eginda dago eta orain hor daukagu, hori da oraingo euskaldun alfabetatuen ardatza. Gero bakoitzak bere idaztanka ematen dio euskarari, baina gero. Noiz arte jasango ditugu zuzenbidezko mintzairan sasi-euskalkiak?

## VI. PROPOSAMENA

Nire proposamena hauxe da: Zuzenbidezko mintzaira mundu pribatutik mundu publikora pasatzea. Eta hori lortzeko lehenengo urratsa Konstituzioaren eta Estatutuaren berritzulpena da, hobeto esanda, lehenago aipatu dugunez lehenengo euskaratzea.

Euskaratze hau egiteko (Zuzenbidezko euskara batua), gaur egun baditugu tresnak. Hor daude legeak, hor daude UZEIko hitzegiak, falta den gauza bakarra adostasuna da: Hemendik aurrera honela esango-izango da.

Berritzulpen hau, ez balego beste biderik, Espainiako Aldizkari Ofizialean irartuts zerrendaz baliaturik sar daiteke. Baina berritzulpena ezin liteke berriro gauza pertsonala izan, «pribatua», hizkuntzaren etorkizunari buruz ari gara, eta horretarako oinarri irmo batzuk jarri behar dira.

Lehenengo eta behin, besteei irakasten hasi baino lehen, argi izan behar dugu zein hitz eskaini. Orain arte gertatu dena hizkuntzaren garapenaren barruan koka dezakegu, baina hemendik aurrera oraingo eta biharko eta betirako erabakiak hartu behar dira.

Bestela, euskara, ohi denez, bizitza pribatuko hizkuntza izatera bultzatzen dugu: norberak bahi duena, itzultzaile eskola bakoitzak nahi duena, baina inola ere ez zuzenbidezko hizkuntza publikoa.

«Euskaldunon Hitz», zuzenbidera heldu bezain laster, galduko da. Eta oraingo mundu hau, nahiz eta oraindik gure Konstituzioak onargabe izan, Zuzenbidezko Estatuak osatzen dute. Ez badugu nahi gure lan guztiaz haizeak eramatea, nahaspila hau konpondu beharrean gaude.

Nire proposamena ez da dena aldatzea, noski. Uste dut, irizpide bera erabiliz, Konstituzioa eta Estatutua aldatuko balira, nahiko izango litzatekeela. Aldaketa horrekin, gure Lurraldeko zuzenbidezko mintzairaren oinarriak izango

---

(21) Ikusi duzuen ez azterketa honetan ez gara sartu ez Foru-Aldundietako arauetan ezta era udalketeeetakoetan. Kanpoan geratu dira auzitegieta eta Zuzenbide pribatuan erabiltzen diren hitzak ere. Falta direnak oraindik nahaspila handiago sortuko lukete.

genituzke; eta hortik aurrera egitear dauden lege guztientzat irizpide bakar bat izango genuke.

Guzti hau aurrera eramateko eta antolatzeko Erakunderik aproposena Legebiltzarra izango litzateke, gure legeak hortik datozelako. Hori bai oraingo honetan Euskaltzaindia (Euskaltzaindiaren lana hizkuntza zaintzea delako) eta Zuzenbidean dihardugunok (22) (zuzenbidezko ikuspuntua adierazteko gai garelako) parte izanik.

Lehenengo lana, aipaturiko Konstituzio eta Estatutuaren euskaratzea izango litzateke, baina hortik aparte, Zuzenbide munduan sortzen diren hizkuntzalaritzazko arazo guztiak konpondu behar dira. Lan honen epea errealitate berak adieraziko du. Helburua normalkuntzara heltzea da.

Nire orain direla lau urtetako nahia (ia ametsa jadanik) betetzeko, denbora beharko delakoan nago, baina ez bagara lehenbailehen hasten gero eta lan okerrago izango dugu, eta esan dudanez, maila honetan gertatzen dena gure buruen gain egongo da. Oraingoan ez dago non bota errurik:

«*Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak izango dira* haiei dagozkien Erkidego Autonomoetan berauen Estatutuei dagozkien eran.»

---

(22) Aipatzen ditugun legeetan Zuzenbide Publikoan gaudenok, eta bereziki Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Publiko alorrean klaseak eta ikerketak egiten ari direnak. arazoak hurbiletik ezagutzen dutelako.